

Donostiarron ikusmiran

Igerilekuak gau txorientzat zabalik

donostiako gau txoriek, tabernaz taberna ibiltzeaz gain, bestelako aukerak izango dituzte datozen gabonetan. Izan ere, Udalak Anoetako kirol guneko igerilekuak eta udaletxe azpiko liburutegia 03.00ak arte zabalik izango ditu ostiraletan eta larunbatetan. Egiako kultur etxea ere ordutegi horretan irekiko da, zenbait ihardunaldi egiteko: musika eta antzerki emanaldiak edota gazteentzako tailerrak eta festak, besteak beste.



Argazkia: Imanol Olegi

Ekimen hau, Gauon izenekoa, Kultura, Kirol eta Gazteria sailek sustatu dute. Guztira, zortzi milioi pezetako aurrekontua izango du eta helburua gauean bestelako aisialdi aukerak eskaintzea da. Anoetan, igerilekuak zabaltzeaz gain, saskibaloia eta futbol areto txapelketak antolatuko dira. Eta udal liburutegian, liburuak, aldizkariak, egunkariak eta internet, bideoteka eta fonoteka zerbitzuak egongo dira herritarren eskura.

Ehun etxe egoera txarrean Intxaurrondon

Intxaurrondoko babes ofizialeko ehun bat etxebizitzatako bizilagunek salaketa aurkeztuko dute datozen egunotan Donostiako epaitegian Brues enpresa eraikitzailearen aurka. Etxebizitza hauek Baratzategi eta Galizia pasela-kuetan daude eta bost urteotan arazo larriak izan dituzte: pitzadurak, hezetasuna, itokinak... Bizilagunen esanetan, kalteak konpontzeko 181 milioi pezeta beharko lirateke. Beraz, enpresa eraikitzaileak konponketak ordain ditzan nahi dute.

Bretxako estalkia, udaberrian

Bretxako baserritarrentzako estaldia eraikitzeko lanak laster batean hasi eta udaberrian amaituko dira. Udal Gobernuak aste honetan egin du esleipena eta lanon ardura hartu duen enpresak lau hilabeteko epea izango du estalkia egiteko. Estalki berria Bretxa parean egongo da, San Joan kalean, eta 27 milioi pezetako aurrekontua izango du. Eraikuntza egin ondoren, Sarriegi plaza libre geratuko da eta beraz, hemen ere berritzeari ekingo zaio.



KM

kulturunea

Urolaneta kalea, 9
DONOSTIA

E R A K U S K E T A

WILDE ISPILUETAN BARNA
OSCAR WILDE A TRAVES DE LOS ESPEJOS
OSCAR DANS LES MIROIRS
WILDE IN MIRRORS
OSCAR WILDE WIDERSPIEGELT

MERCREDI, LE 27 DÉCEMBRE, 19:30 H, VESTIBULE

Danse pour moi, Salomé, Paroles et réflexions sur une pièce. Avec Ana Pimenta. (Français)

FREITAG, 29 DICIEMBRE, 19:30H, ARETO NAGUSIA

Gib mir den Kopf des Jochanaan! Luis Fernando Rupérez comentará la video proyección de la ópera Salomé de Richard Strauss (Castellano-Deutsch)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Euskara
Gazteria eta Kirol Departamentua